



**BARREN
TOKIKOM**

Munduari bira



Kia Rio berria
Orain, zuk aukeratu.



The Power to Surprise

NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1
Eibar. Gipuzkoa

www.naiacar.com

Tel.: 943 70 70 33

Ez dezaten zure ordezkari batzuek erabaki, utzi iezazozu diseinuari, teknologiari eta Kia Rio berriaren espazioari hitz egiten. Era horretan errazagoa egingo zaizu erabakia hartzea. Kontsumo konbinatua (l/100 km): 3,5-4,8. CO₂ isurketak (g/km): 92-109. *Kia eta NAIA ez dira erantzuleak.



Feminismoa, euskalgintzarako gogoeta-tresna?

Bi mugimenduon arteko harremanez, sinergia posibleez, elkarrengandik ikas dezaketenaz, oztopoez, etorkizuneko kezkez eta erronkez galde-tuko dio Alberdik Estebani, ohi duen zorroztasunez eta taxuz eragin dezan gure pentsamenduan.



Mari Luz Esteban



Uxue Alberdi

Urriak 4, asteazkena.
19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan.

Antolatzaileak:



elgoibar

ELGOIBARR
BERDINTASUNA

Laguntzaileak:



Elgoibarraren Foru Erkidegoa





NEREA GURRUTXAGA



“Ez da berdina kafe baten inguruan lagun bati esan diezaiokezuna edo astekari batean”

Kaixo, Nora! Konturatu gabe iritsi gara gure azken *Zozoak beleari* atalera. Esperientzia ederra izan da, niretzat behintzat, zurekin gai ezberdinen inguruan hitz egitea. Munduko txoko berezietatik egin duzu zuk askotan, ordu aldaketak eta eskalak direla-eta, eta horrek oraindik bereziago egiten du. Ez naiz inoiz idazle kontsideratu, eta proposatu zidatenean harridura puntu bat sortu zidan arren, abentura polita iruditu zitzaidan! Izan ere, idazle ez izan arren, esateko zerbait baneukala pentsatu nuen, eta trebatuko nintzela gainerakoan. Hala ere, ez dakit zuri gertatzen zaizun, Nora, baina bertigo puntu bat ematen zidan hasieran nire iritzia publiko egiteak. Nahiz eta eskala txikian izan, ez da berdina kafe baten inguruan lagun bati tabernan esan diezaiokezuna edo astekari batean idatziko duzuna, eta hori neurtzean, konturatu naiz zein ausartak garen askotan pribatuan, baina plaza publikora irtetean zenbat kikiltzen garen. Agian, ez da kasualitatea hori sentitzea, pentsatzen dut herri honen sindrome kronikoa izan daitekeela, ideia edo iritzi jakin bat izateagatik, urteetan, zapaldu eta kartzelatu egin dutelako jendea. Orain, Kataluniari eman diogu lekukoa, eta esan beharra daukat, poz eta inbidia puntu batekin bizi dudala han gertatzen ari den mobilizazio andana. Auskalo honek nora eramango dituen, baina susmoa daukat piztu den gar horrek ez duela itzaltzeko asmorik, eta zaila izango dela egoerari irtenbidea aurkitzea, Estatuko gobernuak bere horretan jarraitzen badu behintzat. Pena puntu bat emango dit Katalunia independente izatera iristen bada, *Zozoak beleari* atalean berri hori zurekin komentatu ezin izateak, baina beti geldituko zaigu kalea, Nora; kalea, taberna, plaza edo parkea. Kontua hitz egiten jarraitzea da, eta eztabaidatzen, eta iritziak plazaratzen. Izan ere, denok ez gara idazle, baina guztiok daukagu zerbait esateko.



NORA KORTABERRIA



“Nola idatzi ondoren irakurleari atsegina egingo zaion zerbait? Uste baino zailagoa da”

Kaixo, Nerea! Irakurri bezain laster bidali dizut whatsapp: “Zein testu ona!”. Elkarren zenbat testu irakurriko genituen orain arte, baina azken hau gustatu egin zait, agian, erabat identifikatuta sentitu naizelako. BARRENEAN egin diguten tarte honi esker izan dugu “esateko” hori esateko aukera eta beste batzuek gure “esatekoa” irakurtzeko aukera. Hau izan da niretzako zailena. Nola idatzi ondoren irakurleari atsegina egingo zaion zerbait? Uste baino zailagoa da. Eta onartu beharrean nago nire testu guztiak (bai, guzti-guztiak) nitaz gain, lagun batek eta amak erreparatu dituela bidali aurretik... Konfiantza eza, bete-betean.

Denok dugu, bai, esateko zerbait. Baina nori esaten dizkiogu esan beharrekoak? Lagunari, ingurukoari, munduari... edo geuri? Nire kasuan, burua bueltaka hasten zaidan une asko izaten ditut, ikusi dudanagatik, entzun edo sentitu dudanagatik. Segituan hitzak tripatik gorantz igotzen hasten zaizkidala igartzen dut, geroz eta azkarrago. Horrelako batean eztarriraino iristen zaizkit. Hala ere, maiz, irentsi egiten ditut, une horretan egokiak ez direla uste dudalako. Eta zergatik den hori? Esateko dudana ez diodalako ingurukoari edo munduari esan nahi izaten. Horren orde, ohitura dut sakelekoa hartu, oharren aplikazioa ireki eta hitz zaparrada hori bertan kanporatzeko, idazten ari naizenaz pentsatu gabe atzaparrak bakarrik mugitzen daudela esaldi lotuak idazten doazen bitartean.

Horregatik, oharren aplikazio horretatik BARRENERA salto egitea izan da niretzat erronka; nire hausnarketen hartzailea ni neu izatetik edozein irakurle izaterako aldaketa, eta idatzitako hitz zaparrada guzti horietatik zuek zein irakurri erabakitzea.

Esan duzun bezala, orain kontua hitz egiten, eztabaidatzen eta iritziak plazaratzen jarraitzea da, eta atal honi esker eman dugun lehen pausuari jarraipena ematea. Ni nire hausnarketa pertsonalekin oharretara itzuliko naizela badakit, baina badakit baita ere, konfiantza gehiagorekin plazaratuko ditudala “esatekoak”. Ea lagunak eta amak hau lehenengoz nire ordenagailuan beharrean hemen bertan irakurtzen dutenean zer pentsatzen duten! Eskerrik asko!!

IÑAKI ODRIOZOLA

Elgoibar 1936 taldekoa



Duintasuna

eta herritarren zapaltzailea geldiarazteko.

Ez zuten lortu. Galtzaile izan ziren, bai gudariak bai milizianoak, eta lurpean gelditu ziren. Faxistak, berriz, mausoleo ederretan, ehorzketa jendetsuetan, hilobiratu zituzten.

Irabazleek euren legea ezarri zuten, euren gizarte atzerakoi, beldurgarri, itogarria; eta jendarte, ezintasunean, geldiarazi zuten, desaktibatu, ezkutarazi, zapalketa naturalizat jo zuten arte.

Isiltasuna izan zen nagusi hainbat hamarkadetan -X. Letek garaiko sehaskantant zioen moduan, amaren "bular politik zerrien jostailu" izan arren "zaude isilik haurra"... "handitzen zeranean ikusiko duzu isilik egoteak zenbat balio dun"... "jarrai zure bidetik, hobe da horrela, gauza denen gainetik haizea bezela".

Orain 40 urte, ustezko aldaketa etorri zen, ezer ez aldatzeko balio izan zuena.

Egindakoaz ahaztea ezarri zen, erantzukizunak ez ziren ordaindu, eta irabazleek berriro irabazi zuten; galtzaileek berriro galdu.

81 urte eta gero horrela jarraitzen dugu. -Erorien Harana (Valle de los Caidos)- monumentalean faxisten buruak ohore handiz gogoratzen dituzte, elgoibartar batek proiektatutako 150 metroko kurutzearen azpian. Aldi berean, oroitzapen historikoaren legea oztopatzen ari dira, oraindik estatuan 130 mila desagertu daudela, Euskal Herrian 10 milatik gora. Asko lurrazpian geldituko dira, jada ez dugulako jakingo non utzi zituzten.

Duintasunaren txokoan, Elgoibarko hilerrian, berreskuratuen artean, krabelina eskuan, oilo-ipurdia hezurretatik gora leporaino. Gudariak gogoan, garai guztietakoak, eta askatasunaren jomuga, lortu gabekoaren desioa, bihotzean. Ez ditugu ahaztuko.

Duintasunaren txokoan, Olasoko hilerrian, izan ginen larunbat goizean. Ekitaldi xumea frankismoaren biktimei egin nahi izan geniena. Ez genuen gauza handirik nahi. Krabelin gorri batzuk uztea hilobi komunaren gainean, gure oroitzapenaren seinale.

27 borrokari daude bertan, 25 identifikatu gabeak. Mendian, bide bazterretan utzi zituzten, hilotz, baina euren gorpuak baino gehiago, pentsatzen zutena nahi izan zuten desagerrarazi: batzuek Euskal Herri askea nahi zuten, beste batzuek gizartearen eraldaketa, eta denak, elkarri lagunduaz, frontean txandaka ibili ziren faxismoa, herrien hiltzaile

"Galtzaile izan ziren bai gudariak eta bai milizianoak eta lurpean gelditu ziren. Faxistak, berriz, mausoleo ederretan hilobiratu zituzten"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskal Leherren Errepublikaren

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitatekoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldeggi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► GARAROCK 2017

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu joan zen zapatuan Mendaron izan genuen Gararock jaialdira bertaratu zineten guztioi, lanean aritu zineten boluntarioi eta Mendaroko Udalarari emandako laguntzarengatik.

Gararock

► KATALUNIAREKIKO ELKARTASUNEZ, BIHAR, BILBORA

Bilboko kaleek gainezka egin behar dute bihar, berriro ere. Elkartasunerako garaia da; Kataluniari gure babesa agertzeko unea. Izan ere, bizitzen ari diren egoera benetan da larria. Espainiako Gobernuak eta haren estamendu judizialek salbuespen egoera ezarri dute Katalunian eta herritarren eskubide zibil eta politikoak urratu dituzte. Demokrazia bera dago kolokan. Izan ere, Espainiako Gobernua eginahalak egiten ari da kataluniarren gehiengoaren borondatez igandean egitekoa den erreferenduma eragozteko. Gure Esku Dagotik kataluniarren bozkatzeko eta erabakitzeko borondatea errespetatzeko exijitzen dugu eta horregatik dei egiten dizuegu bihar, irailaren 30ean, Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzera.

Gure Esku Dago

► GIPUZKOARROK NORA BEGIRA GAUDE?

Adi! Tarragonako Rovira i Virgili unibertsitateak egindako ikerketari esker, Sant Adria de Besoseko (Bartzelona) erraustegiaren inguruan beste lekuetan ohikoak diren baino dioxina kutsadura askoz handiagoak (bost aldiz handiagoak) aurkitu dituztela jakin dugu.

Science of the Total Environment aldizkarian argitaratu den ikerlana joan den martxoan burutu zuten eta bertan erraustegi bat daukan inguru industria-

lizatu horretan 2014. urtean zeuden dioxina kopuruak eta 2017an daudenak alderatu dituzte. Horren bidez ohartu dira lurzoruan dioxinak zerbait jaitsi diren arren (zehazki kiloko 3,6 nanogramotik kiloko 1,66 nanogramotara) airean asko handitu direla: lehen ziren 0,026 pikogramoak orain 0,044 dira. Ikerlanak dio kutsagai horiek direla medio, minbizi arriskuak onargarritzat ematen diren kopuruak bider 2,3 direla. Toxicologiako katedraduna den Josep Lluís Domingo buru duen taldeak adierazi du, dioxina kopuru horietan trafikoak eta bestelako kutsatzaile ezkutuek isuritakoak ere egon daitezkeela. Kutsaduraren arriskuaz ohartarazi ditu agintariak eta herritarrek.

Guzti honen aurrean, gipuzkoarrok nora begira gaude? Zubietan erraustegi bat egiten hasi dira, eta Sant Adria de Besoseko erraustegian gertatzen ari dena hemen ere gertatuko da. Orain nahiko kutsadura badagoela ezin da ukatu, guztion helburuak/ardurak/betebeharra hori murriztea izan beharko luke eta ez erraustegi kutsakor bat buztatzea. Erraustegirik ez inon!

A.I.Z.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEk edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelez datoren eskutitz argitaratuko.

Onddo pozoitsu batekin kutsatu dira hainbat lagun Belaustegi jatetxean

Belaustegi jatetxean zerbitzatu zuten onddo pozoitsu baten ondorioz hainbat bezero kutsatu ziren joan zen asteburuan. Jatetxeko langile bat eta sei bezero izan ziren kaltetuak, eta ospitaleratu egin zituzten. Batek izan ezik, 24 orduko epean jaso zuten denek sendagiria. Jatetxeko arduradunek "sentitzen" dute gertatutakoa, eta eskerrak eman nahi dizkiete euren bezeroei urte hauetan guztietan eman dieten konfiantzagatik.



'Juego de cartas' saioan, astelehenean

Belaustegi jatetxea ETB2ko *Juego de cartas* saioan parte hartzen ari da. Sukaldaritza espezialitate bera duten Euskal Herriko lau jatetxe aurrez aurre jartzen dituzte saio bakoitzean, eta datorren astelehenean izango da Belaustegi jatetxea ikusteko aukera. Eguraldia saioaren ostean izango da, 22:00ak aldera.

Bidegik kartelak kendu dizkiola salatu du Joseba Olazabal mendarorarrak



Autobide ondoan bizi da Joseba Olazabal Mendaron, Granja etxean, eta Autobideko zarata jasanezina dela salatzen dihardu aspalditik, oso modu bitxian. Biolina jotzen du batzuetan, txirula besteetan eta kartelen bitartez hainbat mezu zabaldu izan ditu. Bidegik kartel horiek erretiratu zizkion igandean. Olazabalek pantaila akustikoak jartzeko eskaera egin du behin eta berriz, baina erantzunik ez duela jaso esan du. Bideoan jaso ditugu bere hitzak: www.barren.eus

Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatuta dute

Gure Esku Dago mugimenduak manifestazioa antolatuta du biharko Bilbon, Kataluniako prozesuaren alde, *Demokrazia, erabakitze askatasuna* lelopean, eta Elgoibarko Gure Esku Dagok hara joateko autobusa jarriko du. Honako leku hauetan eman daiteke izena: Jai Alai, Iturri, Otzak eta Lanbroa edo Taldeak Twitter eta Facebook sare sozialetan dituen kontuetan. Txartela autobusean bertan ordaindu beharko da (5 euro).

Ate irekiak Elgoibarko Gaztelekuan urriaren 4an

Gaztelekua ezagutzeko ate irekien jardunaldia egingo dute urriaren 4an, 19:00etatik aurrera. Guraso, hezitzaile, bizilagun edo interesa duen edonork hartu dezake parte. Harremanetarako 943 743 228 / 628 170 330 edo gaztelekua@elgoibar.org.

Gidari mendaror bat atxilotu dute Nafarroan, orduko 221 kilometroko abiadan gidatzeagatik

Nafarroako Foruzaingoak jakinarazi duenez, orduko 221 kilometroko abiaduran zebilen Mendaroko gidari bat atzeman zuten domekan Ablitasen (Nafarroa). Nafarroako Foruzaingoak ibilgailuen abiadura kontrolatzeko kanpaina egin zuen asteburuan AP-68 autobidean, eta radarraren aurretik pasatu ziren 5.186 ibilgailuetatik 1.335ek (%26ak) urratu zituzten abiadura mugak. 1.068 puntu kendu zituzten orotara asteburuan. Guzti horien artean, baina, baimendutako abiadura gainditzeagatik auzipetu dituzten bi gidariren kasuak nabarmendu ditu Nafarroako poliziak. Horietako bat, Mendaroko 50 urteko gidaria dela jakinarazi dute. Orduko 221 kilometroko abiaduran harrapatu zuen radarrak autoa, baimendutakoa baino 101 km/h-ko gehiago. Bide-segurtasunaren aurkako delitu bat leporatu diote gidariari eta Tudelako epaitegian egingo den auzia azkarrean deklaratu beharko du.

Elgoibarko talde batek hirugarren saria eskuratu du Gazterobotika txapelketan

Gazterobotika Lehen Hezkuntzako Euskadiko txapelketa jokatu zuten zapatuan Eibarko Astelena frontoian. 100 bat neska-mutilek parte hartu zuten, eta Elgoibarko Kopro taldeak hirugarren saria eskuratu zuen. Robotikari lotutako proba ezberdinetan lehiatzeko aukera izan zuten partaideek. Kopro taldeko Manex Arrieta, Irune del Amo eta Unai Barrenetxeak Debako tailer teknologikorako egin zuten robotarekin hartu zuten parte. Manex Arrietak eta Irune Del Amok ezin izan zuten Eibarrera joan eta Unai Barrenetxeak hartu zuen parte hiruren izenean. Objektuak jaurtitzeko gai diren roboten kategorian lehiatu zen Kopro taldea, eta hirugarren egin zuen.



Hainbat ekitaldi antolatu dituzte Edoskitzearen Asterako

Urriaren 1etik 7ra Europako Edoskitzearen Astea izango da, eta horren harira, hainbat ekintza antolatu ditu Elgoibarko Maitasunez Hazi taldeak. Hilaren 5ean *Haurraren lehen egunak* hitzaldia eskainiko dute Maribel Lopez pediatria erizaina, edoskitze aholkulari eta Osi debabarrenako langileak eta Patricia Del Rio Osi debabarreneko pediatriak. 18:30ean izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hilaren 7an, bestalde, umeentzako tailerrak eta informazio mahaia jarriko dituzte Kalegoen plazan.

C.D. Elgoibarrek jarriko du txosna bihar, azken zapatuko ferian

Bihar egingo dute iraileko azken zapatuko feria, eta txosna C.D. Elgoibarrek kudeatuko du. 11:00etatik aurrera, salda, txorizo egosia eta txerri-sahieski pintxoak salduko dituzte, 1,5 euroan.

12:00etatik aurrera Kale Kantariet alaituko dute giroa, eta ordu berean, umeentzako pizza tailerra egingo dute Kalebarren plazan.

Frankismoaren biktimak omendu zituzten zapatuan Duintasunaren Kolunbarioan

Frankismoaren biktimak omentzeko ekitaldia egin zuen memoria historikoren aldeko Elgoibar 1936 taldeak, joan den zapatuan. Olasoko hilerrian izan zen, Duintasunaren Kolunbarioaren ondoan, hain justu ere otsailean hobi komunetan zeuden 27 pertsonaren gorpuzkinak hobiratu zituzten lekuan. Joan den irailaren 21ean bete ziren 81 urte tropa faxistak Elgoibarren sartu zirenetik, eta garai hartan Erregimen frankistak jazarritako guztiak oroitzeko baliatu zuten zapatuko omenaldia.

Oroimen ekitaldien barruan, bestalde, *Ele!! Lorca-Luaxeta* lana izan zen barixakuan Elgoibarko Herriko An-



tzokian, Elgoibar 1936 taldeak, Udalaren laguntzarekin antolatuta. 150 ikusle inguru batu ziren Jon Maiak idatzi eta antzeztutako obra ikustera. Ema-

naldia "sekulakoa" eta izugarria" izan zela adierazi dute Elgoibar 1936 taldeko kideek, eta antzokira hurbildu ziren ikusleei eskerrak eman dizkiete.



Beñat Konde eta Irati Altzibar, Moai estatuak atzean dituztela, Txileko Rapa Nui irlan.

Urtebetez munduan barrena

Jules Verne-aren liburuaren protagonistak jokoa egin zuen munduari 80 egunean buelta emango ziola, eta justuan izan bazen ere, apustua irabazi zuen. Beñat Kondek eta Irati Altzibarrek ez dute apusturik egin, baina munduari bira eman diote, urtebetean. 2016ko uztailaren 18tik 2017ko uztailaren 6ra bidaiatu dute munduan barrena, eta esperientziak beteriko motxila ekarri dute bueltan. Esperientzia horien berri eman dute aste honetan Elgoibarko Izarrak antolatutako *Baguaz!* bidaiak-esperientziak zikloaren barruan, eta **BARRENEN jaso dugu urtebeteko abentura horren laburpena.**

- AINHOA ANDONEGI -

Bidaiatzeko zaletasunak batzen ditu Beñat Konde eta Irati Altzibar. 2015eko ekainean ezagutu zuten elkar, eta uztailerako hainbat zitararen ostean, abuztuan Kroaziara joan ziren oporretan, autoz eta kanpin denda txiki batekin. Hiru aste egin zituzten elkarrekin, eta etxera itzultzeko eguna iritsi zenean, autoarekin Euskal Herrirako bidea ala Errusiarakoa hartzeko zalantzan ibili ziren. "Erdi brometan eginiko keinua izan zen bolantea Errusia aldera biratzearena", esan du Iratik, baina behin baino gehiagotan galdetzen zioten elkarri "eta bihar lanera ez bagara bueltatzen, zer?". Biek dute gustuko bidaiatzea, eta bidaiak "handiagoren bat" egiteko nahia eta ilusioa zeukaten. Buruari bueltak hasi ziren, eta lehenengo ideia sei hilabeteko bidaiak bat egitea izan zen, Amerikako kontinentean zehar, Iparraldetik Hegoaldera. Uztailetik abendura egitea pentsatu zuten. Umorez gogoratu du Iratik etxean egin zioten lehenengo galdera eta ia bakarrik Gabonak etxean pasatuko zituen ala ez izan zela: "Baietz esan nien gurasoei, eta lasai geratu ziren". Bidaiak prestatzekotan zirela, baina, lagun batzuekin afaria egin zuten, eta haien esan zieten bazutela ezagun bat urte osoa hartu zuena munduari buelta emateko. Isilik entzun zuten biek ideia hura, ezer esan

gabe geratu ziren, baina bakoitzaren buruan bidaiak hori egosten hasi zen. Afalostean elkarri begiratu eta argi ikusi zuten: horixe zen biek nahi zutena; munduari buelta emateko unea zen. Martxoaren 7a zen, eta bidaiak prestatzeko ekin zioten.

Irati irakaslea da Lehen Hezkuntzan, eta urtebeteko eszedentzia eskatu zuen. Beñatek Goierri Eskolan lan egiten zuen, eta urtero berritzen zioten lan-kontratua. Iazko ikasturtea bukatu zenean esan zien arduradunei hurrengo ikasturtean ez zela egongo. Beñatek argi zeukan lanerako urte asko zituela eta horrelako bidaiak bat egiteko unea orain zela. "Lanak ez ninduen gehiegi kezkatzen. Bagenekien Iratik lanpostua izango zuela itzultzen ginenean, eta nik ere aurkituko nuela zerbait. Eta horrela izan da. Iraila hasieran deitu didate berriz lehenengo lantokitik, eta berriz hasi naiz lanean".

Aurrekontua prestatu zuten lehenengo, eta horren arabera erabaki zuten ibilbidea. One World paketea hartu zuten hegaldiak lotzeko. Programa horren barruan mundu mailako 17 hegazkin konpainia daude, eta 16 hegaldi lotzeko aukera ematen du. "Hegazkinez egiten den Inter Rail moduko bat dela esango genuke. Prezioz ondo iritertzen da, eta gainera hegaldien egunak aldatzeko

“Egunero
egiten genituen
kontuak,
aurrekontua
zaintzeko”

- Irati Altzibar -

aukera ematen du”. Amerika, Ozeania eta Asia kontinenteak bisitatu dituzte. Afrika kanpoan utzi zuten aurrekontua asko igotzen zitzaielako, eta Europa etxetik gertu dagoenez, beste oporraldi batzuetarako uztea erabaki zuten. 20.000na euroko aurrekontua izan dute bidairako, eta dena aurrezkietatik atera dute. “Argi geneukan ez genuela kreditorik eskatuko bidaia honetarako”. Eta oso argi zeukaten beste kontu bat bidaiaren data zen. Iruñeko San Fermin jaiak derrigorrezko zita dira Beñaten agendan, beraz, 2016ko San Ferminen ostean irten eta 2017ko San Fermin jaietarako itzuliko zirela erabaki zuten.

Bilbotik Londresera hartu zuten lehenengo hegaldia eta handik Ipar Ameriketara joan ziren. Estatu Batuak eta Kanada bisitatu zituzten lehenengo. Herrialde “garestietan” *couch surfing* metodoa erabili dute ostatu hartzeko. Metodo honen baitan bizilagunek euren etxeetako atea irekitzen dituzte ostatu bila dabiltzanentzako, doan. Baldintza bakarra bidaiariak jatorriaren bat prestatzea edo afaritarako zerbaite eramatea izaten da. Modu horretan herrialde horietako bizilagunak eta kultura gertuagoiak ezagutzeko aukera izan dute. Denetariko lekuak tokatu zaizkie lo egiteko: etxe txikiak, filmeetako aberatsen moduko etxe bat, eta baita taberna bat ere. “Kanadan esaterako, liburuzain baten etxean egin genuen lo. Etxe txiki-txikia zen, eta zartagin bat besterik ez zeukan gizonak. Puzteko koltxoneta batean egin genuen lo, biltegi moduko batean. Baina tipo oso jatorra zen, eta gustura egon ginen. Nueva Yorken, aldiz, filmeetako aberats handi baten moduko etxean egon ginen. Sofan lo egin behar genuela esan zigun, baina etxe askotako ohea baino handiagoa zen sofa hura”. Beñat eta Iratik ere euren etxeak atea zabalik dute bidaiariak hartzeko. One World hegaldi paketeari eta *couch surfing*-ari esker asko zaindu dute aurrekontua, eta beste hainbat herrialdetan gauak

Beñat eta Irati Luang Prabang-en. (Laos)

aprobetxatzen zituzten bidaiatzeko. Hileko milana euro gastatzea aurrekusi zuten, eta hori zorrotz betetzen saiatu dira: “Egunero egiten genituen zenbakiak, tiket guztiak erreparatzen genituen eta bankutik kobratzen zigutena ere zaintzen genuen”.

Mexikora joan ziren ondoren, eta hilabete egin zuten han. Garazi, Beñaten arreba ere han bizi dela aprobetxatuz, haren etxean egon ziren astebete. Guatemala, Nikaragua, Costa Rica, Uruguai, Argentina, Bolivia, Peru eta Txile bisitatu zituzten gero. Saiatu dira, gainera, herrialde bakoitza ahal zen neurrian ezagutzen: “Ez dugu egin herrialdea ukitu eta ospa”. Costa Rican, esaterako, Panamako mugaraino iritsi ziren, eta Perun Ekuadorreko mugaraino. Sei hilabetetan zeharkatu zuten Amerika iparraldetik hegoaldera. Gabonetan Beñaten senideak joan zitzaizkien bisitan, eta Patagonian ospatu zituzten Gabonak eta baita Beñaten urtebetetze eguna ere, familia giroan.

Ozeaniara joan ziren ondoren, eta hilabete egin zuten Zeelanda Berrian, eta astebete Sidney (Australia). Izugarri gustatu zitzairen Zeelanda Berria, baina hura oso garestia da. “Garagardo bat hartzea luxu bat zen han”.

Hurrengo helmuga: Asiako hego-ekialdea. Vietnam, Kanputxea, Laos, Thailandia, Myanmar. “Azken hau ez zegoen gure hasierako planean, baina behin han egonda joatea erabaki genuen”. Aste Santu inguruan iritsi ziren Thailandiara, eta Iratiren senideen bisita jaso zuten han. Urtebete egon dira etxetik kanpo baina senideen bisitak ere izan dituzte, eta teknologia berriei esker, uneoro mantendu dute etxeokoin harremana.

Japoniara joan ziren ondoren, eta han Kumano Kodo ibilbidea egin zuten, Enperadorearen bide sakratua, Santiagoko Bidearen estiloko ibilbide bat. Japoniarrak oso ordenatuak, isilak eta begirune handikoak direla esan dute. “Harrituta geunden, denerako



“Zeelanda berrian garagardo bat hartzea luxu bat zen”

- Beñat Konde -

egiten zituzten ilarak”. Sumo borro-
kaldi batera joateko aukera ere
izan zuten eta orduan konturatu
ziren japoniarrek han askatzen zu-
tela eguneroko haserre eta ten-
tsioa. “Oso gustura egon ginen
Japonian”. Japoniatik Indiara. Hamaikagarren hilabetea zuten eta
ordurako nekea nabari zuten. India kontraste handiko herrialdea
iruditu zaie. “Iparraldean eta hegoaldea erabat desberdinak dira.
Hizkuntza desberdinak hitz egiten dituzte, eta beraien artean uler-
tzeko ere zailtasunak dituzte”. Hilabete pasatu zuten han, eta az-
kenik Sri Lankara joan ziren. Uztailean 6an iritsi ziren etxera.
Azken egunean Colombon esnatu ziren, hegazkinean gosaldu
eta bazkaldu, Londresen afaldu, Madrilan gosaldu, Elgoibarren
bazkaldu eta Iruñean afaldu zuten, San Fermin festetan.

Dena ondo irten zaie, ez dute osasun arazo larririk izan, be-
larriko infezio txikiren bat eta beherakoren bat salbu, kilo batzuk
galdu dituzte, baina “erreserbekin” joan zirela aitortu dute. Ez dute
arriku egoerarik bizi izan, eta beraien arteko harremana indar-
tzeko ere balio izan die bidaiak. Bikote asko banantzen dira opor
sasoian, baina ez da Beñat eta Iratiren kasua izan. 355 egune-
tan, 24 ordu eman dituzte elkarrekin: “Gure momenturik onenetan
eta txarreetan ezagutu dugu elkar, eta uste baino hobeto moldatu
gara. Bidaia ahaztezina eta edozeini gomendatzeko modukoa



Beñat Mandalay-n (Myanmar), hango gizonezkoak janzen
diren moduan, gonare

izan da, baina Iparragirrek ere abesten zuen: *herrialde guztietan
toki honak badira, baina bihotzak dio zoaz Euskal Herrira*. Irati
eta Beñatek ere argi esan dute bizitzeko Euskal Herria bezalakorik
ez dagoela.

Bidaia zenbakitan

355 egun, 217 lo-leku, 36 hegaldi, 30
herrialde, 21.000na euro eta 17.000 ar-
gazki. Zenbaki handiak, dudarik gabe.

Amerika, Asia eta Ozeania kontinente-
etan barrena 30 herrialde bisitatu dituzte
Beñat Kondek eta Irati Altzibarrek urtebe-
tean. Hiriburu handi eta herri txikiak, kostal-
dea eta mendia, hondartzak eta glaziarak,
txabola txikiak eta etxe orratz handiak, ipar
hemisferioa eta hegoaldekoa... ezbairik
gabe, kontrastez beteriko bidaia egin dute.

Baina herrialde guztiek bazuten ezaugarri
bat komunean: bizilagunen abegitasuna. Denean aurkitu dute
“jende jatorra, laguntzeko prest zegoena”, eta herrialderen ba-
tean hizkuntzarekin arazoa izan bazuten ere, keinu bidez “pri-
meran” moldatu dira. “Ingelesarekin ondo moldatu gara ia
mundu osoan, eta Amerikan gaztelaniarekin nahikoa da, baita
Estatu Batuetan ere, baina Japonian ez zuten ingelesa ulertzen.
Harritura geratu ginen, baina han barne turismo handia dute,
eta ez daukate ingelesa menperatu beharrik”, esan dute. Oro
har, toki guztietan gustura egon dira, baina herri txikietan “abe-
rastasun” handiagoa aurkitu dute. “Hiri berriak azken batean



denak antzerakoak dira”. Toki guztietan sentitu dira gustura;
desberdinak eta bereziak izan dira guztiak, baina gustukoena
aukeratzerakoan Mexiko eta Laos aipatu dituzte.

Erropaz beteriko motxila handia eraman zuten, eta egunak
eta hilabeteak aurrera joan ahala erropak gutxitu eta haiek utzi-
tako lekua esperientziak bete zuten.

Aurrezkiak xahututa, baina esperientzien motxila aberastuta
itzuli dira etxera. Berriz aurretzen hasteko unea dute orain. Bi-
daiatzek pisu handia dauka bikote honen bizitzeko moduan,
eta ziur laster hasiko direla hurrengo bidaia prestatzen.

“Igandean Katalunian ikusiko dugun irudia handia izango da, seguru”

► IRUNE ULAZIA BARTZELONAN BIZI DEN ELGOIBARTARRA

Izugarrria da Kataluniatik iristen zaigun albiste emaria. Iganderako, urriaren 1erako, erreferendumera deituta daude kataluniarrek, baina ikusteko dago zer gertatuko den, Espainiako Gobernuak eginahalak egiten ari delako erreferenduma eragozteko. Kataluniako Gobernuak ere ez dago, baina, itxura batera, atzera egiteko prest. “Tinko” ikusten ditu Iruñe Ulaziak agintari kataluniarrek, eta “eredugarri” erantzuten herritarrek. Astelehenean hitz egin genuen Ulaziarekin, Madrilan agindupean mossoek, Guardia Zibilak eta Espainiako Poliziak egin zuten bilera hasi aurretik.

-AINARA ARGOITIA -



Iruñe Ulazia (eskuinean), 2014ko Diadan, lagun batekin.

◆ Elgoibartar bat Katalunian. Honez-kerok erabat kataluniar-tuta, gainera. Zenbat urte daramatzazu hor? Zertan diharduzu?

Aspaldi laga nion kontatzeari, baina hogeitaka urte izango dira, hogeita bost baino gehiago bai. Etorri eta sekulako zortea izan nuen, segituan hasi nintzelako lanean. Oposizioak egin nituen, eta Generalitatean eman zidaten lana, administrazioan. Palautik kanpora ere egon naiz lanean, Gobernuaren beste sail batzuetan, baina orain, duela bost bat urtetik, Presidentziako sailburuaren idazkaritzan dihardut, hemen, Palaun bertan. Pribilegioa da eraikin honetan lan egitea, eta are gehiago orain, momentu historiko honetan. Nire egitekoa lehengo bera da, baina orain, Generalitatearen egoitzan lan eginda, gauza gehiago ikusi eta bizitzeko aukera daukat.

◆ Giroa nahikoa gaiztotu da hor. Generalitateko goi-karguak atxilotuta, erreferenduma babesteko prest agertu diren alkateak auzitegira joan-etorrian, Espainiako Poliziak eta guardia zibilak

hartzeko eraman dituzten itsasontziak Bartzelonako moilan, miaketak, milaka herritar kalean mobilizatuta, polizien arteko botere-dema, Carles Puigdemont presidentea bera atxilotzeko aukeraz Fiskalak egindako ohartarazpena eta Mariano Raxoiren abisua: “Garaiz zaudete kalte handiagoak eragozteko”. Nola bizi duzu salbuespen egoera hau?

Salbuespen egoera bizi dugula argi dago. Nik garbi daukat une historiko bat ari garela idazten Katalunian, baina esan beharra daukat hemen normaltasun osoz bizi dugula prozesu hau. Une historikoa da, bai, baina lasaitasun osoz bizi dugu, telebista kate batzuk tematuta ari badira ere kontrakoa erakutsi nahian. Begira, ni ez naiz manifestazio guztietan izan, baina ibili naiz kalean eta nik giro hori arnastu

eta ikusi dut. Garbi dago kataluniar gehienek bozkatu nahi dutela, erabaki nahi dutela euren etorkizuna. Inkestek ere hori esaten dute: botoa eman nahi dutenak herritarren %80 baino gehiago direla. Etorri eta ikusi egin behar da hemen bizi duguna, baina bene-benetan diotsut nik ez dudala krispaziorik igarri. Kontrakoa: umorez eta irribarrez ari dira erantzuten kataluniarrek. Hori bai, agintariak esan eta esan ari dira ez jausteko probokaziotan, ez emateko aitzakiarik Espainiako Gobernuari prozesua auzitan jartzeko, horren bila ari direlako haiek.

◆ Zenbat gehiago tenka daiteke soka?

Egunetik egunera ari dira gauzak aldatzen eta zailtzen hemen. Gaur astelehena da, eta zuek hau argitaratzen duzenerako batek daki zer beste gerta-

tuko den, baina beste handiren bat egingo dute seguru. Lehen esaten genuen egunean egunekoa bizi behar genuela, egunean egunean zetorrenari erantzun, baina erreferendumerako eguna gerturatu ahala ikusten dugu orduro ari direla gauzak aldatzen. Hala ere, nik uste dut garbi gelditu dela kataluniarrek badutela erantzuteko gaitasuna. Egun batetik bestera deitzen dute agintariak mobilizatzerara eta kaleak bete giten dira.

♦ **Palaun bertan egiten duzu lan. Ikusi ditugu horko langileak ere Carles Puigdemont presidenteari txaloka. Zer nolako babes duela iruditzen zaizu?**

Bistan da Puigdemontek babes handia duela. Egunero ikusten dugu hori. Palaun bertan ikusi genuen langileek zer nolako harrera beroa egin zioten eta Palautik irteten denean ere zain izaten ditu herritarrek plazan, txaloka. Joan zen zapatuan Girona eta Bartzelonaren arteko partidaren ere sekulako harrera egin zioten.

♦ **Espainiako Gobernuak Generalitatari eraso zion bete-betean joan zen asteazkenean. Iruditzen zaizu inflexio puntu bat izan zela asteazkenekoa? Uste duzu erreferendumaren alde daudenen kopurua hazteko balio izan duela?**

Zalantzarik gabe, bai. Askotan hitz egiten da marra gorriaz, ezta? Ba nik esango nuke Espainiako Gobernu sarri dabilela marra hori zapaltzen, baina joan zen asteazkenean gaingitu egin zuela marra hori. Oso egun berezia izan zen; oso egun gogorra. Ordura arte geldi zeudenak ere kalera irten ziren, baita independentzia zaleak ez direnak ere. Konbentzio demokratikoa duten guztiak asaldu ziren. Jendeak ez zuen hartu autogobernuaren kontrako eraso soiltzat, baizik eta oinarrizko eskubideen kontrako erasotzat. Jendea piztu egin zuen asteazkenekoak, bai batekoak zein besteak. Orain, eztabaida ez da independentzia bai ala ez. Orain demokrazia bera dago jokoan edo arriskuan. Botoa ematera joateko asmorik ez zutenei ere entzun diet esaten igandean bozkatzeko asmoa dutela, demokrazia babesteko.



Irene Ulazia, joan zen domekan, unibertsitate atarian.

♦ **Nolako izan zen zure asteazkena?**

Gogorra izan zen. Goizean goiz irratia piztu eta batean eta bestean sartzen ari zirela entzun genuen. Hemen, Palaun, ezohiko gobernu bilera ere egin zuten eta presidentek agerraldi berezia egin zuten, sailburu guztiak atzean zituela. Goizetik gauera jardun ginen gu lanean, normaltasunez, baina bai, giroa berezia izan zen.

♦ **“Ezinezko ameskeria da erreferenduma”, dio Raxoik. Zer gertatuko da urriaren 1ean? Ikusten duzu aukerarik bozkatu nahi dutenek bozkatu ahal izateko?**

Ikusita Espainiako Gobernu nola ari den jokatzeko ez dago jakiterik zer gertatuko den, baina aldi berean, Kataluniako Gobernu ere oso gogor ikusten dut berean. Konfiantza eskatzen ari da Gobernu, eta nik konfiantza osoa daukat harengan. Horregatik uste dut bozkatu ahal dugula.

♦ **Zer giro sumatzen duzu zuk zure inguruan? Jendeak badu erreferendumean parte hartzeko asmorik?**

Bai, bai. Espainiako Gobernu, gainera, arrazoiak eman eta eman ari da jendeak gai honi buruz hitz egin dezan eta herritarrek botoa ematera joan daitezela. Herenegun bertan auzoko batek gelditu ninduen eskilaran eta honela esan zidan:

“Orduan igandean zer? Lehen orduan botoa ematera, ezta?”. Igandekoa nik uste dut egun historikoa izango dela. Ikusiko dugun irudia handia izango da, seguru.

♦ **Euskal Herritar asko dira begia Katalunian jarria dutenak. Kataluniarrak mobilizazioetarako erakusten ari diren irudimena, ekintzetarako erakutsi duten umorea... deigarri ere badira. Naturaltasunez bizi duzuela diozu. Zu zeu ez zaitu harritu beraz kontu horrek?**

Azkeneko urte hauetan urtero irteten gara kalera eta nik esango nuke beti erakutsi dugula positibismo hori. Sekulako manifestazioak egin dira, baketsuak guztiak, eta aurrera egiteko gogoak erakutsi dugu beti. Prozesu hau ere halakoxea izan da: umoretsua, alaia, positiboa... Orain gertatzen ari zaiguna da orain arte urtean behin egin behar izan duguna egunero eta orduro egin behar dugula, baina irudi hori ez da berria hemen. Atzo eguerdirako adibidez udaletxe aurreetan bildutako geunden, eta joan ginen, alai, banderak hartuta batzuk. Poliziaren helikopteroa uneoro egon zen gure gainetik hegan eta jendea agur esaten aritu zitzaien. Ikusgarria ari da izaten kataluniarrak erakusten ari diren jokaera gizalegezkoa. Agintariak, hori bai, mentuoro ari dira erresistentzia baketsu-

rako deia egiten, eta nik uste dut horrek berak ere indarra ematen digula. Espainiako Gobernuak eginahalak egiten ari da prozesua deslejitimatuko lukeen orban edo puntu horren bila, eta horren aurrean, esango nuke, hemengo gobernuaren eta herritarren jarrera eredugarria ari dela izaten.

♦ **Herritarrak guardia zibilarri krabelin gorriak ematen, polizia autoak lorez josituta... ba al dago irudiren bat zu zeu ere harritu zaituena?**

Patrolen irudia asteazkenekoa da. Patrol horiek Ekonomia departamentu aurrean laga zituzten polizia atxilotetak egitera barrura sartu zirenean eta gertatzena izan zen jendea inguruan pilatzen hasi zela Gobernuari babesa agertzeko eta patrolak jendetza hartan harrapatuta gelditu zirela. 22:00etan pasatu nintzen ni handik eta izugarria zen han zegoen jendetza. Nik esango nuke Katalunian herria dela bultzaka ari dena, mobilizatzen ari dena, eta bai irudi politik eman dituzte mobilizazioek, baina esan nahiko nuke, oihartzun handia izan badute ere, hemen ez direla berriak. Barneratuta daukagu hori.

♦ **Badira erreferendumak beharrezko bermeak biltzen ez dituela nabarmendu dutenak eta urriaren 1an gertatzen dena gertatuta ere prozesu honen balioa zalantzan jarri dutenak. Zer duzu esateko? Erreferendum homologarri bat izateko aukerarik ikusten duzu?**

Denok nahiko genuke erreferendum "normala" izatea, baina argi dago ezin izango dela guk denok nahiko genukeen bezalakoa izan, ez digutelako laga. Hala eta guztiz, eta informazio pribilegiaturik ez daukadan arren, pentsatzen dut ahal diren berme guztiekin egingo dela erreferenduma. Horretarako edo horretan ari da lanean Kataluniako Gobernuak. Ari zaizkio oztopoak jarri eta jarri, baina Generalitatea bere esku dagoen guztia egiten ari da erreferenduma egin dadin eta ganorazkoa izan dadin, eta nik neuk badaukat konfiantza hala izango dela. Garbi daukat ez dela txapuz bat egingo.

♦ **Zer emaitza beharko litzateke zure**

"Izan daiteke Euskal Herrian hartu den bideak errebuelta gehiago izatea, baina zuzenduko gara hor ere"

ustez erreferendum honen emaitzak aintzat hartuak izan daitezten? Zer balio ematen diozu zuk zeuk erreferendumari?

Nik ez dakit emaitza zenbatekoa izan behar den. %56koa aipatzen dute batzuek, azaroaren 14an bi milioi lagun izan ginela beste batzuek... garbi daukadan da zenbaki handia izango dela eta nabarmen geldituko dela aintzat hartu beharrekoa izango dela.

♦ **Erabakitze eskubidearen alde eta Kataluniari babesa agertzeko elkarretaratzeak egin dira herrietan eta manifestazio handia ere egin zen joan zen astean Bilbon. Biharko, gainera, beste manifestazio batera deitu du Gure Esku Dagok. Nola bizi dituzue kanpotik jasotzen ari zareten elkartasun keinuak?**

Hunkituta nik neuk. BARRENEAN bidez jakin dut Elgoibarren ere egin zutela elkarretaratzea eta emozioz jaso dut berria. Bilboko irudiak ere ikusi genituen eta esan beharrik ez dago elkartasun keinu guzti horiek oso gustura hartzen ditugula

hemen. Katalunia eta Euskal Herriaren artean beti izan da harreman berezia, eta nik esango nuke, bereziki estimatzen direla hortik iristen zaizkigun babes keinuak. Badakigu bene-benetakoak direla. Izan daiteke ni euskal herritarra naizelako izate, baina ez, uste dut orokortzeko modukoa dela.

♦ **Euskal Herrian ere ari dira pausok ematen. Zein gertu edo urruti ikusten duzu Euskal Herria Kataluniatik?**

Bide ezberdinak hartu dituzte, baina edozein kasutan, bideak egiteko daude eta bidean beti izaten dira errebueltek gainditzeko. Izan daiteke Euskal Herrian hartu den bideak errebuelta gehiago izatea, baina zuzenduko gara hor ere. Itxaropena badut. Euskal Herrian beste egoera batzuk bizi izan ditugu, eta beharbada, denbora gehiago beharko dugu, baina bidea hartu bada iritsiko gara.

♦ **Ezberdinen arteko elkarrizketa lan-tzen dihardu Gure Esku Dagok. Zubiak eraikitzen. Ez zaizu iruditzen aniztasunaren kontu horretan Kataluniak dezenteko aldea ateratzen digula?**

Izan daiteke. Hemen etorkin asko daukagu bertakotuta eta normaltasun osoz bizi dugu hori. Egia da hemen ere badauzkagula hor bezala gertuagoko etorkinak sekula bertako egingo ez direnak, asmorik ere ez dutelako, baina oro har esango nuke aniztasunean aberatsa dela Katalunia.



2017-2-6. Artus Mas, Irene Rigau eta Joana Ortega Kataluniako Auzitegi Nagusira deklaratzera deitu zituzten eguneko mobilizazioan parte hartu zuen Irunek.

Denboraldiko hamargarren garaipena lortu du Maite Maiorak Ultra Pirineu mendi lasterketan

Kataluniako Moixero Parke Naturalean jokatu zuten Salomon Ultra Pirineu mendi lasterketa, irailaren 23an. Emakumezkoetan, Maite Maiora izan zen azkarrena 110 kilometroko ibilbidea eta 6.800 metroko goranzko desnibela duen lasterketa gogorrean. Antxitxikari mendarorrenzatzat hamargarren garaipena izan da hamarrekoa izaten ari den denboraldian. Ultra Pirineun Mont Blanceko ultra traila irabaztetik zetorren Nuria Picas katalana izan zen Maioraren aurkari gogorrena. 50. kilometro ingurura arte orpoz-orpo joan baziren ere, une horretan aurrera jo zuten Maiorak eta aldea handitu baino ez zuten egin ondorengo kilometroetan. Baga herrian zegoen helmugan 21 minutuko aldea atera zion Picasi. 14 ordu, 22 minutu eta 19 segundoan osatu zuen proba.



Gorbeia Suzien

Maite Maioraren hurrengo erronka Zeanurin jokatu den Gorbeia Suzien

Ternua proba izango da, urriaren 7an. Europako Txapelketa izango da aurten, Sky modalitatean.

Lendinez bigarren eta Lariz bosgarren Beriaingo igoera bertikalean

Uharte Arakil-Beriain Kilometro Bertikala jokatu zuten domekan Sakanako haranean, Nafarroan. Emakumezkoetan txapeldunorde izatea lortu zuen Ainhoa Lendinez (54:18) elgoibartarrak. Virginia Perezek irabazi zuen proba, eta gainera errekorra ontzeko 6 segundo eskasera geratu zen, 49:33ko denbora eginda. Mayi Mujika elgoibartarrak ere parte hartu zuen proban, eta 10. postua eskuratu zuen,

1:02:40ko denbora eginda. Gizonezkoetan, Iñigo Larizek inoiz baino azkarrago (42:15) igo zuen Beriaín mendia (1494 m.), baina ez zen podiumera igotzeko nahikoa izan, eta bosgarren postuan sailkatu zen. Aitor Osa itziartarrak irabazi zuen proba (40:56), laugarren urtez jarraian. Osak 20 segundo atera zizkion Didier Zagori (41:16) eta 35 segundo Imanol Goñiri (41:31)



Elgoibarko Enduro moto lasterketa urriaren 8an jokatu da



Urnobitza Kirol Klubak 10. Elgoibarko Enduro moto lasterketa antolatu du urriaren 8rako. Gipuzkoan egiten den modalitate honetako proba bakarra da Elgoibarkoa, eta Euskadi eta Nafarroako txapelketetarako puntuagarria izango da. Euskal Herriko eta Espainiako hainbat bazterretatik etorritako 120 gidarik hartu zuten parte iazko Enduroan eta aurten gehiago izatea espero dute antolatzaileek, tartean Urnobitza Kirol Klub-eko hoge pilotu baino gehiago. Mintxetako aparkalekutik abiatuko dira pilotuak, eta 30 kilometro inguruko ibilbidea egin beharko dute. Lehenengo pilotuak 9:30ean hasiko du ibilbidea, eta guztira hiru itzuli eman beharko dizkiote mendiko bideari, betiere kontrol puntuetatik pasaz. Erlojuaren aurkako zatia ere izango du probak. Mintxeta kirolgunearen atzeko zelaietan egongo da zirkuitua. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, Urnobitzako igoeran eta Munaundiko basoetan egongo dira lekurik ikusgarrienak jarraitzaileentzat, Azkarateko autobideko zubiaren inguruan. Urnobitzak, era berean, 2017ko Elgoibarko Enduroa antolatu ahal izateko Elgoibarko Udalaren, Udal Kirol Patronatuaren, babesleen eta lursail jabeen aldetik jaso duten laguntza eskertu du.

Iker Calvo igerilaria saritu dute

Iker Calvo igerilari elgoibartarrak Gipuzkoako Igerilari Onenaren Saria jaso du, 2006an jaiotakoen artean. Irunen egin zuten Igeriketaren Galan saritu zituzten 2016-2017 denboraldiko igerilari onenak, eta horien artean saritu dute 11 urteko Iker Calvo. Elgoibarko Igeriketa Taldean ibili da orain arte, eta Eibarko Urbat taldean hasi berri da oraintsu.



Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 2 – Ordizia 2 (Erreg Pref.)

Urki 4 – Elgoibar 2 (1. erreg.)

Aloña Mendi 4 – Elgoibar 2 (Oho. jub.)

Elgoibar 4 – Ikasberri B 1 (Jub. 1. maila)

Elgoibar 2 – Lazkao 1 (Oho. kad.)

Elgoibar 9 – Soraluze 0 (Kad. 1. maila)

ESKUBALOIA

Errota Berri 22 – Lauko Elg. 24 (Senior. emak.)

Alcorta Elgoibar 21 – Maristas Zaragoza 20 (Sen. giz.)

Salento 33 – Aloña Mendi 19 (Sen. giz.)

Tecnifuelle 42 – San Adrian 24 (Jub. nesk.)

Urduliz 28 – Deca Elg. 28 (Jub. mut.)

Arilan Elg. 18 – San Adrian 20 (Kad. nesk.)

Urduliz 30 – Urkunde Elg. 28 (Kad. mut.)

Zarautz 33 – Bankoa Elg. 21 (Kad. mut.)

Pulpo 14 – Bacalaos Alkorta Elg. 19 (Inf. nesk.)

Durango 15 – Modeltek Elg. 29 (Inf. nesk.)

Hotel Txariduna 16 – Pulpo 20 (Inf. mut.)

Durango 11 – Pneumax Elg. 16 (Inf. nesk.)

Zubacor Elg. 15 – Bergara 22 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 30

11:00 Elgoibar – Urki (Oho. kad.)

16:30 Haundi – Lagun Onak (Erreg. pref.)

18:30 Elgoibar – Urola (1. erreg.)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 30

11:00 Bankoa Elg. – Komat Eibar (Kad. mut.)

16:30 Cometel-Dario Bus – Pulpo (Kad. nesk.)

18:00 Lauko Elg. – Aiala Zarautz (Sen. emak.)

Domeka, 1

10:00 Urkunde Elg. – Bidasoa Irun (Kad. mt.)

11:30 Deca Elg. – Bidasoa Irun (Kad. nesk.)

Feminismoa eta euskalgintzaren arteko ahizpatasuna izango dute gogoetagai urrian Elgoibarren

Uxue Alberdi eta Mari Luz Estebanek hasiko dute zikloa, urriaren 4an



Itziar Agirregomezkorta, Lore Lazpiur, Kristina Zuatzubizkar, Maialen Gurrutxaga, Elena Alonso, Imanol Larrañaga eta Ainhoa Mendibil.

E G I T A R A U A

- ◆ **Urriak 4. 'Feminismoa, euskalgintzarako gogoeta-tresna?':** Uxue Alberdi bertsolari eta idazle elgoibartarrak Mari Luz Esteban antropologo eta unibertsitateko irakaslea elkarriketatuko du. 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan.
- ◆ **Urriak 18. Euskara generoaren ikuspegitik:** Amelia Barquin Huheziko irakaslearen hitzaldia. 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan.
- ◆ **Urriak 20. Rap ibiltaria: La Basu, Aneguria eta Raquel Corona:** 19:30ean, Kultur Etxearen parean hasita.
- ◆ **Urriak 25. 'Izan daiteke euskaltzalea feminista izan gabe?':** Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel kazetari eta antropologoak. Ainhoa Mendibil kazetari elgoibartarrak gidatutako elkarriketa. 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan.
- ◆ **Urriak 27. Euskalgintza eta feminismoa, atzo eta gaur:** Itziar Fernandez eta Ane Astiazaran feminista eta euskaltzaleei elkarriketa sakona BARRENEN.
- ◆ **Urriak 28. Bertso-bazkari literarioa:** Gidaria: Danele Sarriguarte idazle eta itzultzaile elgoibartarra. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Nerea Ibartzabal. 14:00etan, Txariduna hoteleko hall-ean. Prezioa: 20 euro (15 euro ikasleek eta langabetuek). Izena emateko azken eguna: urriak 23 (Elgoibarko Izarra: 943 741 626)

Uxue Alberdi bertsolari eta idazle elgoibartarrak Mari Luz Esteban antropologoari egingo dion elkarriketarekin hasiko da asteazkenean, urriaren 4an, *Euskalgintza eta feminismoa eskutik helduta* zikloa. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udaleko Euskara eta Berdintasun Sailek antolatu dute elkarlanean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Feminismoa, euskalgintzarako gogoeta-tresna izenburua jarri diote zikloko lehen saioari, Alberdi eta Estebanen arteko solasaldiari. Mari Luz Esteban pentsalari feminista da, sortzez Pedrosa de Valde-

porreskoa

(Burgos, Espainia)

eta ageri-agerikoa du euskaltzale-

tasuna. Bi mugimenduon arteko

harremanez, sinergia posibleez,

elkarrengandik ikas dezaketenez,


oztopoez, etorkizuneko kezkez

eta erronkez arituko da, Uxue

Alberdiren galdereri erantzunez.

Kultur Etxeko hitzaldi-gelan izango da saioa,

19:00etan.



Publikoak erantzun ona eman du Sotoko Hotsak eta Gararock musika jaialdietan

Musikaren asteburua izan da joan den hau Elgoibarren eta Mendaron. Ostegunean, Audience taldea aritu zen Herriko Antzokian, eta ostiralean, Atom Rhumba Sotoan, eta gozatu ederra hartu zuten batera zein bestera bildutakoek. Bi egunean, 200 bat lagun batu zituen Sinuösek antolatutako jaialdiak. Mendaron, berriz, bigarren urtez antolatu zuten Gararock jaialdia Garagartza auzoan, eta herritarrek emandako erantzunarekin oso gustura agertu dira antolatzailerak.



Eguraldi ona lagun, estreinako edizioan baino jende gehiago batu zen jaialdira, inguruko herrietakoak asko, eta giro polita sortu zen. Antolatzailerak sei rock talde gonbidatu zituzten eta herriko hiru nerabek osatutako Jo ta Ito taldeari ere eman zioten jendeurrean aritzeko aukera. Horrek berak gaztetxo asko erakarri zituen Garagartzara. Antolatzailerak eskerrak eman dizkiete antolakuntza lanetan aritu diren boluntarioei -hogeita bost bat lagun- gonbidatuei eta publikoari.

Egun handia dute gaur Aiastian, San Migel Eguna, asteburu luze baten atarikoak



Gaur hasiko dituzte San Migel jaiak Aiastia auzoan. Jaietako egun handia izango dute gaurkoa, patriaren omenezkoa. Kanpai jotzearekin hasiko dute eguna, eta ohiko meza nagusiaren ondotik, bertso-saioa, esku pilota partida eta auzotarren bazkaria izango dituzte. Ansorregi trikitalariek girotuko dute bazkalostea, eta gauean, Borja Uzuriaga zenaren omenezko dantza saioa egingo dute Haritz Dantzari Taldekoek, frontoian. Eta afaritan indarrak hartu ostean, Fan&go taldekoek markatutako erritmora dantzatuko dira goizaldera arte. Jai-giroa, baina, ez da gaur amaituko, asteburu osorako egitaraua osatu dutelako. Agendan duzue egitarau osoa.

Joana Soldevilla eta Naia Zubiaurreren lanak saritu dituzte Mendaroko margo lehiaketan

Hogeita bi lagunek parte hartu zuten zaptauan Mendaron egin zuten margo lehiaketan: hamalau, nagusien kategorian, eta zortzi, 14 urtez azpikoetan. Nagusien kategorian Joana Soldevillaren lana saritu zuen epaimahaik, eta gaztetxoen sailan, Naia Zubiaurrerena. Margolan guztiak erakusketa batean erakutsiko dituzte urriko lehen hamabostaldian, Lagun Betikoak elkartearen Argazkian sarituek, alkatea eta epaimahaikoak.



LANA.....
Eskaerak

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat nagusiak zaintzen eta sukaldari laguntzaile lanetan.
☎ 631 827 339

Langile elgoibartar eta euskaldunak elkartze eta txokoen garbiketarako egiteko eskaintzen gara. Esperientzia daukagu.
☎ 626 490 986

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago, orduka.
☎ 637 102 725 / 943 744 033

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo interna.
☎ 632 436 462

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 632 410 561

Ingelesa. Etxez etxeko klaseak eta maila guztiak. Tituludun irakaslea.
☎ 680 319 002

Garbiketarako egiteko prest nago, orduka. Nagusiak ere zainduko nituzke, orduka edo asteburuetan.
☎ 657 831 093

Lanerako prest nago, orduka, asteburuetan edo gauzez.
☎ 629 872 270

Lanerako prest nago. Orduka edo interna.
☎ 688 718 853

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erreferentzia onak ditut.
☎ 631 343 232

Umeak zaintzeko eta eskolako lanekin laguntzeko prest nago. Euskalduna. Titulua eta esperientzia ditut.
☎ 688 639 371

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna.
☎ 646 821 678

Adinekoak zainduko nituzke gauzez.
☎ 602 490 595

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka zein interna.
☎ 602 818 849

Tabernan edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia.
☎ 600 319 516

Altzariak konpondu, lurrean parketa jarri edo barniza ematen dut. Esperientzia handia.
☎ 635 005 536

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka edo interna moduan. Erreferentziak ditut.
☎ 689 571 882

Edozein lan mota egiteko prest nago. Esperientzia handia nagusiak zaintzen.
☎ 625 804 767

Garbiketarako egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 603 237 932 / 943 259 115

Nagusiak zaintzeko eta pasiatzera ateratzeko prest nago.
☎ 699 535 728

Adinekoak zainduko nituzte gauetan edo asteburuetan.
☎ 632 733 573 (Olga)

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 631 777 327 (Bertha)

Asteazken eta ostiraletan lan egingo nuke, 9:00etatik 15:00etara.
☎ 686 578 228

Ume edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 685 724 861 / 943 748 899

Gazte euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edota etxeko garbiketa lanak egiteko. Goizetik 11:30era.
☎ 617 248 087

Eskaintzak

Urkunde elektrizitate teknikorako langilea behar du, produkzio eremurako. Beharrezkoa da profesionaltasun elektrikoaren ziurtagiria, ertain edo goi mailakoa. Bidali CV-a e-posta honetara: urkunde@urkunde.es

Zerbitzaria behar da Mahats tabernan lan egiteko.
☎ 646 936 092

ETXEBIZITZAK.....
Pisua hartuko nuke alokairuan.
☎ 677 259 560

Pisu txikia alokatuko nuke, edo bestela etxea konpartitu.
☎ 600 383 157

3 gelatako pisua hartuko nuke alokairuan.
☎ 602 490 595

Pisua salgai Ermuaranbide 10ean. Berriua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio negoziagarria.
☎ 943 743 197

Elgoibarko erdigunean pisua alokatzen dut: 3 logela, sukalde-jangela eta komunak. 3. pisua igogailurik gabe. 500 euro hileko eta 3 hilabeteko bermea.
☎ 688 650 060 (Laura)

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarran.
☎ 631 827 339

Bi pertsonentzako etxea edo ganbara hartuko nuke alokairuan. Presazkoa da.
☎ 638 338 816

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarran.
☎ 626 329 979

BESTELAKOAK.....
Lursaila salgai Urruzuno auzoan. 800 m², fruitu-erbolak eta txoko-txabolarekin.
☎ 669 683 351

OSPAKIZUNAK.....
77an jaiotako bazkaria urriaren 21ean Belaustegi Baserrian. Urriaren 13a baino lehenago 60 euro sartu behar dira ondorengo kontu zenbakian: ES73 3035 007 2100 71134422 (Laboral Kutxa)

1972koen bazkaria urriaren 7an. 60 euro sartu behar dira irailaren 29rako ondorengo kontu korrantean: ES40-3035-0007-26-0071134189 (Laboral Kutxa).

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Enpresa Administrazioaren Kontsegiak



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Lokaleko atea kaltetu diote gure komunitateko jabe bati, eta orain ezin du atea ondo itxi. Eta lokal-jabe horrek komunitateari eskatzen dio orain atea aldatzea. Batzarrean aztertu dugu gaia eta jabe bati ez daude konforme konponketa hori komunitatearen gain uzteko, beste kasuren batean euren aldatu edo konpondu behar izan dituztelako euren atea.


Zure galderari erantzunez zera esango dizut: komunitateko jabe bati baten lokal, ganbara edo etxebizitzako atean izandako kalteak konpontzea jabe bati berari dagokiola.

Era berean, legeak argi dio jabe bati guztiak dagokiela erabilera pribatuko elementu komunak -terrazak esate baterako- behar bezala zaintzea. Lokaleko edo etxebizitzako atea jabetza pribatukoak dira, eta beraz, jabe bati berari dagokio kalteak konpontzea. Beste kontu bat litzateke kalte horiek zeinek eragin dituen jakingo bagenu.

AHOLKUA: Ezin dugu komunitatearen gain laga jabetza pribatuko elementuetan izandako kalteak konpontzeko erantzukizuna.



Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Manex**, zure 10. urtebetzean! Egun ona pasa! Muxu handi bat bereziki anaia Xabat eta Unairen partez.



Zorionak, **Eider!** 10 urte! Asko maite zaitugu. Ondo pasa zure urtebetetze festan!



Zorionak, **Joane**, astelehenean 11 urte egin zenituelako. Jarraitu horrela!



Zorionak, **Haizea**, irailaren 20an 10 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat familiakoekin partez.



Zorionak, **bikote!** Azkenean iritsi da zuen eguna. Primeran pasatuko dugu. Etxeko guztien partez.



Zorionak, **Naroa** eta **Izar**, 7 eta 6 urte egin dituzelako. Muxu asko familiakoekin partez.




Zorionak **Maddi**, igandean 12 urte! ondo ondo pasa. Muxu handi bat danon partez.



Ederki pasa genuen zuen ezkontza egunean. Zorionak, **Xabier** eta **Leire!**



Zorionak, **bikote!** Ondo pasa zuen egunean. Txirindularitzako lagunen eta kideen partez.



Zorionak, **bikote!** Eskerrik asko egun hain polita pasarazteagatik. Zure gurasoen eta ahizparen partez.



IRAZABAL

clínica dental




Familiaren Osasuna

Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal

Eta twitterren: @Clinicairazabal









IRAZABAL
clínica dental

Julién Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Jon Aranao
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneatik ostiratarera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inopaindegi zerbitzua daukagu.
Dena ortua hartzeko.

RFB 183/12



ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com



AUDIFONO DIGITAL BERRIENAK



**Ez da soinu kalitatea bakarrik;
bizi-kalitatea ere bada**

30 ZAPATUA

9:00 Hilabete amaierako nekazaritza eta abeltzaintza feria.

Egitaraua:

9:00 Baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai, Kalebarren plazan.

12:00 Kale kantariak

12:00 Pizza tailerra, Kalebarren plazan.

Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa, Aita Agirre plazan.

1 DOMEKA

12:00-14:00/18:00-20:00 Erakusketa. Mendaroko margo lehiaketan saritutako lanen erakusketa, Lagun Betikoak tabernako lokalean. Urriaren 15era arte, ostiral, zapatu eta domeketan.

12:30 Informazio mahaia. Ahal Dugu Podemos taldeak Baldintzarik gabeko oinarrizko errentari buruzko mahaia jarriko du Kalebarren plazan.

3 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra, Consuelo Carrererekin. *Crimen y Castigo* liburua landuko dute. Haizeak antolatuta, Udal Liburutegian.

4 EGUAZTENA

19:00 Solasaldia: *Feminismoa, euskalgintzarako gogoeta tresna?*

Uxue Alberdik Mari Luz Esteban elkarrizketatuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. *Euskalgintza eta feminismoa* zikloaren barruan antolatu dute Elgoibarko Izarrak eta Udalak elkarlanean.

19:00 Ate irekiak, Gaztelekuan. Guraso, hezitzaile, tutore, bizilagun edo interesa duen edozein heldurentzat.

5 EGUENA

18:30 Hitzaldia: Haurren lehen egunak. Hitzlariak: Maribel Lopez pediatriako erizaina, edoskitze aholkularia eta OSI Debabarrenako langilea eta Patricia del Rio OSI Debabarrenako pediatra. Maitasunez Hezi taldeak antolatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

6 BARIXAKUA

18:30 Argazki erakusketa: *Mundo compartmentado*. Ongarri argazki taldeak antolatuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

21:30 Zineforum saioa. *Sólo una noche* filma landuko dute, Loredi Salegik dinamizatuta. Kafea pastekin hartuko dute lehenik, eta ondoren filma ikusiko dute. Antolatzaila: Haizea.

SAN MIGEL JAIK, AIASTIAN

Irailak 29, 30 eta urriak 1

29 BARIXAKUA, San Migel Eguna

11:30 Meza

Jarraian, Ziarda eta Mañu bertsolariak.

Ondoren, esku-pilota partidak.

14:30 Bazkaria.

Ondoren, Ansozregi trikitilariak.

21:00 Borja Uzuriagaren oroimenez dantzaldia, Haritz EDTren eskutik.

22:30 Gazte afaria.

Ondoren, erromeria Fan&go taldearekin.

30 ZAPATUA

13:00 Umeen jokoak.

Jarraian, umeen bazkaria.

Ondoren, umeentzako parkea.

18:00 Bolo txapelketa.

21:00 Bertso afaria, Jone Uria eta Nerea Ibarzabal bertsolariekin.

Ondoren, erromeria, Mirari, Aitziber eta Luturdixokin.

1 DOMEKA

11:00 Meza.

Jarraian, Baltzola Anaiak trikitilariak.

12:00 San Migeleko XI. Artxain Txakur Txapelketa. Euskal Herriko arraza libreko finala.

14:30 Bazkaria.

17:00 Idi demak.

Jarraian, Baltzola Anaiak trikitilariak.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Remember' (Ongarri)

5 eguna, 21:30



'Detroit'

6 barixakua, 21:30

7 zapatua, 19:00 / 22:15

8 domeka, 19:00

9 astelehena, 21:30



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00

29 Barixakua IBAÑEZ
30 Zapatua GARITAONANDIA
1 Domeka GARITAONANDIA
2 Astelehena ETXEBERRIA
3 Martitzena FERNANDEZ
4 Eguaztena YUDEGO
5 Eguena ORUESAGASTI
6 Barixakua BARRENETXEA

GUARDIAK 20:00 - 22:00

Guardia Elgoibartik kanpora denean,
asteburuetan izan ezik:
BARRENETXEA (Elgoibar)
Errosario, 26 - 943 741 277


22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)
San Agustin, 3 - 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112



Jose Luis Azurmendi Garmendia

2017ko irailaren 14an hil zen, 88 urte zituela.

***Pertsona atsegina
alaia, umila
Orendaindik atera
umetan Zegamara.
Lan egin behar
hemen, Elgoibar.
Familia eta etxe
auzoa Artetxe.
Maite izan duzenoi,
mila esker guztioi.***

Etxekoak





Eire Vila

Mikel Olaizola



Bat jartzen da idazten horretara gonbidatzen dutelako eta ezetz esaten ez dakielako, eta konturazterako bizitza oso bat darama berdina egiten, pulpitutik sermoilari. Eta berez dialektikan indartzen den pentsamendua bakarrizketan etzaten da hala, irudituz norberak beti duela arrazoi, aurrean inor ez da-eta. Norbere buruaren aurkako pinpon partida, nork bere pilotak botaz eta bueltan jasoz.

Baina denok dakigu, bakarka ezin dela luzaroan jolas egin, edo ez dela berdina gutxienez. Izan ere, beti bukatzen duzu zeure burua jasan ezinetik besteak disezio mahaian etzatera, haien zornetutako zaurietan lardaskan, eskuak zikin-duta, baina besteren odolez. Orduan bihurtzen da justiziaren sinbolo mahaia, ekitatearena, azken epaia emateko zain. Eta

haren mantupean arrazionalizatzen ditugu gure alderdi ilunak, ongia eta gaizkia besteei aurpegira jaurtiz, geure esku zikinekin. Horretan jardun dut urte hauetan hemendixe.

Psikoanalistak agian esango lidake organismo ahul eta heldugabea naizela, argazkian (eta beraz nigan) pinponaz gain ebakuntza mahaia eta justiziaren irudia ikusten ditudala esanda. Heriotzari beti zeharka begira dabilena, eta bere legea bere indarrez ezarri ezinik justiziaren idealak obsesio-natuta bizi dena. Behin hemen idazteari utzi eta berriz bisitatu beharko dudak psikoanalista hark. En fin, Kataluniari omen egiteko ere ez zen txarra azken Hitz eta Klik hau, baina egoak gainez egin dit beste behin.

Ez nuen agurrik esan gabe joan nahi, batez ere irakurri izan nauten hiru-laei, beraien gozoan ozpina bota diedanei, behazunez zipriztindu. Egia eta askatasuna opa denontzat.

Ausartuko al gara.

“Denok dakigu bakarka luzaroan ezin dela jolas egin, edo ez dela berdina, gutxienez”

Osasun
gida

Osasun
gida

 **aldaz**
hortz klinikak

RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratu eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 626
www.fisio-mas.com

RPS 132/08

 federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

**Jeku
eder**
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

 **ainhoa**
fisioterapia

RPS 271/12

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745



RPS 183/12
Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA



Terribio Etxebarria, 22
Elbar
Tel. 943 106 020
Mug. 677 551 850

ETXEBIZITZA ETA
GARAJEEN HURRENGO
ERAIKUNTZA **UBITARTEN**

943 31 65 86

INFORMAZIO
GEHIAGO

www.sukia.com

San Roke kalea 15 - 20870 Elgoibar
Koordenadak: 43.212760, -2.416292

 **sukia**
Zure etxean zaude Estás en tu casa

 **grupo
LAZKANO**

 **k**
hexagon

2018 Gida komertziala



BARREN

Elgoibarko eta Mendaroko gida komertziala prestatzen dihardugu.
Zure enpresaren datuak gidan DOAN agertzeko aukera daukazu!

Datu-basea osatzeko zure laguntza behar dugulako, eskerfuko genizuke gurekin haremanetan jartzea:
gida@elgoibarkoizara.eus / gidabarren@gmail.com - 943 744 112

**Interneten ere
bai!**





STOCK FERIA ELGOIBAR

NOIZ? URRIAK 7, ZAPATUA

NON? MAALAKO PARKEAN

10:00ETATIK 14:30ERA

*PARKETU - HARTZEKO EDO INFORMAZIO GERTLAGO NAHIL EZANEZ GERO DEITU 943 74 73 01 TELEFONO ZENBAKIRA